



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Eramanerraza baita nire uztarria eta arina nire zama”

2023ko uztailaren 9a
Urteko 14. igandea (A)

Mateo 11, 25-30.

Behin batean, Jesus honela mintzatu zen: “Goresten zaitut, Aita, zerulurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko.

“Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ez eta Aita ere inork ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak.

“Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. Hartzazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotzapala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; eramanneraza baita nire uztarria eta arina nire zama”.

Goresten zaitut, Aita, zerulurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu.

HERRI XUMEA

José Antonio Pagola

Jesusek ez zuen izan arazorik jende xumearekin. Herriak aise egiten zuen Jesusekin bat. Familia aurrera ateratzeko bere lurak landuz bizi zen jende umil hark pozik onartzen zuen Jainko Aitaz ematen zion mezua: bere seme-alaba guztiez arduratsu zela, batez ere bazter utziak zirenez.

Ezgaituenak Jesusen bedeinkazio bila ibili ohi ziren: haren inguruan askoz hurbilago sumatzen zuten zeruko Aita. Emakumeek barruntatzen zuten Jesusek esaten zuen bezala maitatzen dituela Jainkoak bere seme-alabak: ama baten bihotzez.

Herria konturatu zen berek behar zuten Jainkoa agertzen ari zitzaiela Jesus; hain zuzen ere, Jainkoaz hitz egiten zuen moduz, bere izateko eraz eta pobreen eta beharrean zirenen aurrean zuen jarreraz. Aitaren hurbiltasun salbatzailea sumatzen zuten Jesusengan.

«Adituen» jarrera bestelakoa zen. Herri xumeari poza ematen dionak gogaitu egiten ditu halako aditu haiek. Lege-maisuek ezin ulertu dute nolatan kezkatzen den Jesus hainbeste sufrimenduz eta hain gutxi larunbata betetzeaz. Jerusalemgo buruzagi erlijiosoek errezeloz begiratzen diote: Jesusek hots egiten duen Jainko Aita ez da Berri On, baizik arrisku haien erlijioarentzat.

Jesulentzat, bere mezuarekiko erreakzio desberdin hau ez da ustekabekoa. Aitari hori iruditu zaio hoberena. Horregatik, eskerrak damaizkio guztien aurrean: «Aita, zeruko eta lurreko Jauna, eskerrak damaizkizut gauza hauek jakintsuei eta adituei ezkutatu eta jende xumeari ezagutzera eman dizkiozulako. Bai, Aita, hobeto iruditu zaizu hori».

Gaur ere beste inork baino hobeto atzematen du Ebanjelioa jende xumeak. Ez du arazorik Jesusekin bat egiteko. Erlijio-kontuan «adituak» direnei baino gehiago agertzen zaio Aita. Jesusez hitz egiten entzuten dutenean, berez bezala jartzen dute konfiantza harengan.

Gaur, esateko, garrantzizkoa den guztia eliz hierarkiaren baitan pentsatzen eta erabakitzen da, herri xumea kontuan izan gabe eta urrun utziz. Halere, ezer gutxi egin ahal izango da berririk eta onik etorkizuneko kristautasunarentzat herri xume hori gabe. Herri horrek egingo digu tira Eliza ebanjelikoago baterantz, eta ez teologokoek, ez buruzagi erlijiosoek.

Herri sinestedunaren baitan den potentzial ebanjelikoa berraurkitu beharra dugu. Kristau xume askok Kristorekiko atxikimendua modu ebanjelikoagoan bizi beharra ikusten, desiratzen eta eskatzen dute, Jesusen Espirituak biziberrituan den Elizan. Ebanjelio gehiago eta irakaspen gutxiago ari zaigu eskatzen. Funtsezkoa ari zaigu eskatzen, eta ez axaleko gauzak.